



berdindu!

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# Berdindu!-k antolatutako zozketa: #FindeBytheFace, #AsteburuaMusutruk.

## 1. Sustapenaren xedea.

Berdinduk, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei (LGTBI) informazioa eta arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak, #FindeBytheFace, #AsteburuaMusutruk zozketa hau antolatu du, dibulgazio-helburuetarako, honako profil honen bidez: “@berdinduejgv”.

Sustapen-ekintzak irauten duen bitartean, 2 bonu zozkatuko dira, 2 eguneko egonaldiako, landa-ostatu batean, 4 pertsonentzat.

<https://www.nekatur.net/bonu-fuksia>

## 2. Denbora- eta espazio-eremua.

Promozioa ekainaren 15ean (osteguna) hasiko da, 20: 00etatik aurrera, eta ekainaren 17an (larunbata) amaituko da, 23: 59an.

Argazkiak ondorengo orduetan atera beharko dira:

- ekainak 15 eta 16, 20: 00etatik 22: 00etara.
- ekainak 17.- 19: 00etatik 22: 00etara.

Argazkiak horretarako instalatutako photocallean egin behar dira, Berdinduren standean, Bilbao Harroko kontzertu-gunean, Bilboko Areatzan.

## 3. Parte-hartzea.

16 urtetik gorako pertsona fisikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta sareetan, Instagramen, Facebooken edo Twitterren profil bat badute.

## 4. Sariak.

Sustapenean, 2 zozketa egingo dira, 3 sareetako parte-hartzaileen artean. Zozketak ekainaren 23an (ostirala) egingo dira.

Berdindu, zuzeneko mezu bidez, jarriko da harremanetan irabazleekin, saria emateko.

Zozketa egin eta astebetera irabazleak ez badu erantzuten, ordezkoen zerrendako lehenengo pertsonari emango zaio saria.

Berdinduk ez du erantzukizunik izango saria baliatzearekin lotutako erreklamazioen aurrean, ez eta sariari buruz izan litezkeen itxaropenen aurrean ere.

Sarituak baimena ematen dio Berdinduri bere profila erreproduzitu, erabili eta zabaltzeko, sustapen honekin zerikusia duen edozein sustapen-jardueratan.

## 5. Nola parte hartu?

Parte-hartzea Instagram, Facebook edo Twiter profilen bidez egin ahal izango da, urrats hauei jarraituz:

• Berdinduren photocall-ean argazki bat ateratzea. Photocalla Berdinduren standean egongo da, Bilbo Harroko kontzertu-gunean, Areatzan. Egun eta ordu hauetan egongo da irekita:

- Ekainak 15 eta 16, 20: 00etatik 22: 00etara.
- Ekainak 17.- 19: 00etatik 22: 00etara.

• Norberaren profilera igotzea, @berdinduejgv etiketa jarrita.

Parte-hartzaile guztiak animatzen ditugu #FindeBytheFace edo #AsteburuaMusutruk hashtag-ak erabiltzera.